



IBILBIDEA

1 LIBURUTEGIA

Antzina Santiagoko Bidea egiten zuten erromeseentzako Ospitale bat zen, Bermeon lehorreratzen zirenak joaten ziren bertara. Ospitale hau gaitz kutsakorrak zituzten gaixoenzat eta erromesentzat erabiltzen zen. 1632an Bizkaiko jaurgoa ixtea agindu zuen. Zabaldu zeneko data ezezaguna da. Eraikina neoklasiko popularra da, behetik igarotzeko aukera ematen duen arkuteriekin. Arrantzale-kofradiaren lonja bezala erabili zen eta baita hiltegi bezala ere. Hau dela eta, "matadero" izenez ere ezagutzen da.

2 SANTA KATALINA ERMITA

Guda garaian gure herria babesteko balio zuen gotorleku baten ondoan kokatzen da. Gaur egun gotorleku horren harresiaren zati bat baino ez da geratzen. Gaur dagoenaren aurretik zegoen hasierako ermita eriki zeneko datari buruzko informaziorik ez dago. Estuagoa eta luzeagoa zela esaten da, eta gaur eguneko baino ekialderago kokatzen zela. Bere ondoan eta hormari itsatsia, txiroentzako eta gaixo kutsakorrenzako aterpetxe bezala erabiltzen zen etxola zegoen.

1879an guztiz hondatuta zegoen eta ia osorik jausi zen, berehala sortu zen berria eraikitzeko interesa. Ermita berria 1885eko azaroaren 25ean zabaldu zen. Trantsiziozko eraikuntza da gotikoaren eta errenazimenduaren artean. Arrantzale-kofradiak erabiltzen zuen eta askotan izurrite leku bezala eta baita ondoko gotorlekua jaurtigaiak hornitzen zuen bolborategi bezala ere.

3 KALBARIOKO GURUTZEA ETA KURUTZIAGA JAUREGIA

KALBARIOKO GURUTZEA: 1611. urtekoa, Errenazentista Berantiarra edo Erromanista estilokoa, garaiari zegokion era. Aldeetako batean gurutzefika eta bestean Amabirgina umearakin mantentzen ditu; denak espresio esanguratsu eta garai honetako ohiak adierazgarriekin. Aipatutako talde guztia plintodun toskanako zutabe batdu euskarri gisa eta honek bere oinean inskripzio bat du eta, zertxobait ilun dagoen arren, hareharrian honakoa irakur daiteke: "Gurutx hau Rodrigo Abad de Mendecanok eginarazi zuen, zuok irakurleok erregutu subiranoari 1611 urtea".

KURUTZIAGA JAUREGIA: "Simitur" etxea bezala ere ezagutzen den etxe hau, abizen bereko familiara izan zen 1648 urtean Mundakatik desagertu zen arte. 100 urte luze beranduago, 1783. urtean, Arteaga familiako kideren batek berrizatu zuen: familiaren ezkutua jarri zuen aurrealdean eta Palacio de la Cruz edo "Kurutzia Jauregia" izena hartu zuen. Gaur egun erabat berriztatua dago eta hotela bihurtu da. Goiko aldean lau ezkutu polikromatu ageri dira



4 LARRINAGA JAUREGIA

XIX. mendetik Liverpoolen (Inglaterra) kokaturiko izen bereko ontziolaren jabea zen Larrinaga familiak erikitako jauregia. Jauregiak Bigarren Inperioko Pariseko hotel neobarroko frantsesen eragin nabarmena erakusten du. Tamaina egokia du orokorrean, alboetako gorpuak altuera handiagokoak dira eta Erdiko gorpuarekin alderatuta aurreratuta agertzen dira. Izan ere, eraikin honek Frantziako arkitekturen konstante ugari errepikatzen ditu, hala nola txapitula eta tximinia ugari teiltuan, kuxin formako kantoiak eta hesi indartsua etxea inguratuz.

5 AMAIA-ENEA TXALETA

Tipologia eklektiko bati erantzuten dio eraikin honek, estilo menditarretik nahiko gertu. Eklektizismo arkitektonikoa arkitekturen ematen den joera artistikoa da, estilo eta garai ezberdinetako elementuak batzen dituen. Garai honetako arkitektoek eta artistek egiten dutena, orokorrean, Artearen Historia guztiak interesatzen zaiena hartzea da.

6 TXORROKOPUNTA KAIA

Hemendik Laida eta Laidatu ikuspegi zoragarria daukagu. Udan surfeko ikastaroak ere hemn hasten dira. Txorrokopuntako kaitik, eta beti ere itsasbehera badago, oholaren gainean arraun egiten Laidako hondartzaraino joaten dira; behin han, ohol gainean zutik ipintzen ikasten dute.

7 TXORROKOPUNTA TXALETA

Itsasora sarbide zuzena duen "neovasco" estiloko eraikina. Eriakinerako sarbidea, beharretako arku duen atari handi baten bidez egiten da, baserrien estilora. Estaldura bi isuritakoa da eta azpian puntu Erdiko leihatilaz osaturiko ilara ikus dezakegu. Berriz ere baserrietako egurrezko armazioa kopiatzen da.

8 IBAIALDE JAUREGITXOA

Jauregitxo honetan menditar estiloaren zenbait ezaugarri aurkitzen dugu. Amaia-Enea ikusi dugunean aipatutako estilo eklektikodun arkitekturaren konstanteak mantentzen dira hemen ere (izkina dorrea). Kanpoko burdin sarrerako eta, batez ere, balkoiatarako egindako forja lanak ikusgarriak dira.

9 JUAN TRIBISARROSPE

Berriztatu egin da eta gaur egun udalerriko Kultur etxea bihurtu da. Izena bere diru-emaile nagusiarri zor dio. 1923an eraiki zen, 1907tik arrantzale-kofradiako egoitzetan kokatzen zen San Luis Ikastetxean ikasten egondako umei ostatua emateko. Eraikinaren berriztatze lanetan, aurrealdea mantendu da.

10 SANTA MARIA ELIZA

Parrokia hau XI. mendean bazegoen, San Juan de la Peña Monasterioan, Aragoi, gordetzen den 1071. urteko emate dokumentu batek agerian uzten duenez. Bandokiden borroken ondorioz eliza guztiz hondatu zen eta XVI. mendean berreraiki eta handitu egin zen. Gotiko-errenazentista estilokoa da. Estaldura hiru ataleko gurutzeria-gangaz eratzen da. XIX. mende bukaeran elizaren kanpo eta barne itxura erabat aldatuko duen obra izugarria egiten da.

11 ATALAIAKO BEGIRATOKIA

Mundakari ahoa betetzen zaio bere esker-olatuaz hitz egiten duenean, eta ez da gutxiagorako, izan ere maila honetan Europako olaturik onenatzat daukate. Ezker-olatu famatu honek mundu guztiko surfariak erakartzen ditu urtero. Mundakako barran jaiotzen da eta Laidako hondartzan amaitzen du bere ibilbidea. Hego/hego-mendebaldeko haizearekin eratzen da eta 4 metrotako altuera eta 400 metrotako luzera izatera heldu daiteke. Olatuak hartzen duen hodi formak, surfariei bere barnealdetik kostatuz guztia ikusteko aukera ematen die eta horrek balio erantsia ematen dio.

Mundakak urtero mundo mailako txapelketak hartzen ditu bere uretan eta bederatzik aldiz izan da Billabong-pro zirkuito internazionalako egoitza. Olatu honen gainean surfari onenek euren garaipen-zerrenda handiagotu dute..

12 KASINOA ETA ARRANTZALE-KOFRADIA

Eraikin honen goiko aldean "Fraternidad Mundaquesa" delako elkarteak aurkitzen da. 1818. urte inguruan eraiki zen, hasiera batean Lonja-etxearen funtzioak betetzeko, Ospitalean (gaur eguneko liburutegia) zegoen lonja bertara eraman baitzen. Eraikinaren goiko aldea 1890. urtean gehitu zen, Kofradiak Fraternidad Mundaquesa Elkarteari pisu bat altxatzeko eta bere egoitza bezala erabiltzeko baimena eman zionean.

13 UDALETXEA

Herriko plazan amaituko dugu gure bisitaldia, Mundakako Udaletxea eta Herri Eskola bere baitan hartzen dituen eraikina mireztuz. Eraikin hau 1895. urtean eraiki zen, Mundakako bi gizon handik emandako laguntzari esker. Juan Bautista Longa eta Florentino Larrinagari buruz ari gara, koinatuak biak eta Ingalaterran zegoen ontziola garrantzitsu batekin erlazionatuak. Eraikin honek sortu zenetik izan ditu bere baitan bai Udaletxea eta baita eskolak ere. Antzina eraikinaren alde batean nesken eskola zegoen eta kontrako aldean mutilena. Gaur egun, ordea, eraikinaren atzealdetik lotuta daude, erdiguneak Udala gordetzen duen bitartean.

Artistikoki, estilo eklektikoa dela esan genezake, aurrealdean eragin ezberdinek antzeman ditzakegulako, flamenkotik mozarabera. Beheko soilaruan euskal udaletxeetako arkupe tipikoa eraikitzen da; eskolako umeek jolasteko erabiltzen da eta baita mundakarak paseatzeko ere. Eraikinaren erdialdean kanpandorre bat dago eta honen azpian erlojua.



MUNDAKA

KOKAPENA – BERE SORRERAREN ISTORIA

Mundaka Busturialdeko eskualdean kokatzen da, 1984. urtean UNESCOk Biosferaren Erreserba izendatu zuen Urdaibai Erreserba barruan hain zuzen ere.

Mundakako jatorria ezezaguna da eta horren ondorioz alegia eta kondairak erabili izan dira beti bere sorrera azaltzeko, Tubal, Noeren iloba, Bizkaian egotearena esaerako.

Bikingoak etorri zirela esaten da, zenbait adituren ustetan Bizkaiko ostaldean horren beste hile hori eta begi urdindun tipoak egotearen arrazoia, barnealdeko euskal tipoa ez bezala. Herriaren izenari dagokionez ere, iparraldeko jatorria aurkitu dioenik badago, Erdi Aroko kokaleku bikingo baten egonaldiarekin lotuz. Horrela, danieran, "mund" "ahoa" esan nahi du eta Mundaka Oka errekararen itsasadarraren ahoan aurkitzen da.

Mundakaren izena latinezko "munda aqua" (ur garbia) izapidearekin lotzen duen kondaira ere oso ezaguna da. Kondaira hau Lope Garcia de Salazarrek XV. mendean idatzitako kronikan agertzen da. Istoria honen arabera, Mundakako kostara Eskoziatik zetorren itsasontzia heldu zen, bere lurraldetik kanporatua izan zen printzesa ekarriz bere baitan. Eskoziarrek, latinezko beren hizkuntzan "Munda aqua" izena jarri zioten lekuari, Urdaibaiko itsasadarreko ur nahasien bestelakoa zen ur garbia zuen iturria aurkitu zutelako. Altamira Jauregian bizi izan zen printzesa honek seme bat izan zuen, gerora Jaun Zuria bezala ezagutu zena eta Bizkaiko lehen Jauna izango zena.

